

**UDAL ESKOLA KONTSEILUAREN BATZORDE
IRAKUNKORRAK 2.011ko EKAINAREN 17an IKASLE
ETORKINEN IKASTAROAK DIRELA-ETA IZANDAKO
BILKURARI DAGOKION AKTA.-**

Batzarreratuak:

- Gernikako AEK (Igone eta Iratxe)
- San Fidel Ikastola (Bego Zabaleta)
- Barrutialde Institutua (Ane Mestraitua)
- Inmigratioko teknikaria (Bego)

Ezin etorria jakinarazi dutenak: Mertzede Ikastetxea, Allende Salazar ikastetxea.

Idazkari lanetan: Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria (Bittor Zarrabeitia)

Hasiera ordua: 11:00k.

Amaiera ordua: 12:15k.

1).- Gernikako AEK-ko ordezkariak ikasturtean garatu diren ikastaroei buruzko txostenak azaldu ditu.

AEKko Iratxe irakasleak eman ditu argibideak ikasturteko taldeei buruz. Guztira 24 ikasle aritu dira bi taldetan:

- **Hasiera mailako balorazioa** positiboa izan da, nahiz eta aurreikusitako ikasle zerrendatik azkenekora aldaketa asko izan (4baja, ikastaroa martxan dagoela berriak,...). Ikasleen arteko harremanak onak izan dira eta helburuen betetze maila %50koan utzi daiteke (ikus txostena).
- **Hobekuntza mailari dagokionean**, balorazioa are positiboagoa izan da, jarraipen hobea, betetze-maila altuagoa eta ikaslegoa

egonkorragoa izan da. Ikasle baten salbuespena aipatu da, nahiz eta berbarako gaitasuna eduki jarrera txarra izan duelako.

Hausnarketa egin ondoren, hauxe erabaki da:

- Hurrengo ikasturterako ikastaroaren hasiera urrian finkatu eta apirilean bukatu. Beranduegi egiten da maiatza, azterketekin topo egiten delako.
- Mailak: orain artekoak mantendu, hasierakoa eta hobekuntzarakoa.
- Ikaslearen adina: DBHko ikasleak (nahiz eta LHko ikasleak izan, adinez DBHko ikasleak izatea balegokie, onartuak izango dira).
- Ordutegia: dagoenarekin jarraitzea (arratsaldeko 5:00etatik 6:30era).
- Tokia: Seber Altube ikastola, 2009ko azaroaren 5ean izan zen batzarrean erabakiari jarraiki:

“2).- Hurrengo urteetako ikastaroak txandakatzea, bi urterik behin lekua aldatuz. Horretarako zozketa egin da (kanpo utzi dira Barrutialde Institutua, Barrutia ikastetxea eta Allende Salazar Ikastetxea):

* 2010-2011 / 2011-2012 ikasturteetan Seber Altube Ikastolan.

* 2012-2013 / 2013-2014 ikasturteetan Mertzede ikastetxean.

* 2014-2015 / 2015-2016 ikasturteetan San Fidel ikastolan.”

2).- 2011ko udako ikastaroen antolaketa.

Iazko planteamenduari eustea **erabaki da:**

- Uztaila osoa (5etik 29ra bitartean).
- Bi talde, hasierakoa eta hobekuntzarakoa. Taldea osatzeko gutxieneko ikasle kopurua: 8.
- Egunean bi ordu (goizeko 10:00/12:00 edo 9:00/11:00, ikasleen gogoia kontuan hartuz).
- Zentroei ikastaro horretarako ikasleen zerrendak eskatu, betiko baldintzak kontuan hartuta:



- Ikaslearen izen-abizenak.
 - Adina eta ikasketa maila
 - Telefono zenbakia.
- Zerrendak posta elektronikoz honako helbidera bidaltzea:
euskerateknikaria@gernika-lumo.net

Batzordeko idazkaria,

Bittor Zarrabeitia
Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria